

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### OGASUN SAILA

#### Ondare Kudeaketa

#### **Zuhatzuko 53. sektoreko udal jabetzako F-3 lursailaren kuota banaezina lehiaketa bidez besterentzeko dosierra abiaraztea, baldintza-agiria onestea eta lehiaketa deitzea**

Udala jarraian adieraziko diren erreferentzia-datuak dituen lursailaren ehuneko 62,36ri dagokion erabateko jabetzaren kuota banaezin baten titularra da: Vitoria-Gasteizko 3. Erregistroan ageri da, 22.523 funts-zenbakiarekin —4284 liburukia, 555 liburua, 53. Orria—, 1. Inskripzioa, bizitegi-lursail gisa deskribatzen da, 882 m<sup>2</sup>-ko azalera eta 200 m<sup>2</sup>-ko eraikigarritasuna dituelarik; Iparraldean F1 eta F2 lursail ondoriozkoa du mugakide, Hegoaldean sektorearen muga, Ekialdean, F4 lursail ondoriozkoa, eta Mendebaldean VL-5 izeneko bidea (katastro-erreferentzia 591004930000010001KU).

Lursailaren jabetza-kuota hori alta emanda ageri da Udal honen Ondasun eta Eskubideen Inbentario Orokorreko 1. Epigrafean, I-3894 erreferentziarekin, eta udalaren lurzoru ondarearen kategorian.

2020ko urriaren 30ean, Tokiko Gobernu Batzarrak erabaki zuen lursail hori besterentzeko baldintza-agiria onestea. Oinarrizko prezioa edo lizitazio-tipoa 96.806,42 euro da (laurogeita hamasei mila, zortziehun eta sei euro, eta berrogeita bi zentimo), zergarik gabe, eta lehiatzaileek gora eginez hobetu ahalko dute.

Esleipendunaren kontura joango dira eskualdatzeak eragingo dituen gastu eta zerga guztiak: lizitazio-iragarkia ALHAOn argitaratzeko gastuak, notario eta erregistroari dagozkienak, zergak eta gainerakoak.

Dosierra Ogasun Saileko Idazkaritza Teknikoaren Zerbitzuan aztertu ahalko da (Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25), alde zuzenetik hitzordua eskatuta, eskaintzak aurkezteko egunaren bezperara arte, herritarrei laguntzeko bulegoko jendaurreko ordutegian.

Baldintza-agiria <https://v-g.eus/zuazodevitoria> helbidean kontsultatu ahalko da.

Proposamenak Vitoria-Gasteizko Udalaren Erregistro Nagusian —Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25 behe; 01008 Vitoria-Gasteiz— aurkeztu beharko dira, 8:30etik 13:00etara, astelehenetik ostiralera, urriaren 12ko 1098/2001 Legegintzako Errege Dekretuaren 80.4 artikuluan xedatutakoaren arabera, edo postaz, 10 egun naturaleko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

Postaz igorri gero, bidalketa zein egunetan egin den justifikatu beharko du lehiatzaileak, eta bidalketa egunean bertan eskaintza egin izana jakinarazi deialdia egin duen organoari, posta elektronikoz ([ofertasconcursos@vitoria-gasteiz.org](mailto:ofertasconcursos@vitoria-gasteiz.org)).

Bi eskakizun horiek bete ezean, iragarkian adierazitako epea bukatzen den eguna eta ordua igaro ondoren jasotzen badu deialdia egiten duen organoak, ez da onartuko proposamena. Edonola ere, adierazitako datatik hamar egun natural igarotzen direnean proposamena iritsi ez bada, ez da inolaz ere onartuko.

Aurkezpen-epea amaitu eta hurrengo bost egun balioduneko epearen barruan, eta horrek gaitasun betekizunak betetzen diren egiaztatuko du, eta lizitatzailleen proposamenak dituzten gutun-azalak irekitzeko eguna eta ordua zehaztuko du <https://v-g.eus/zuazodevitoria> web-orrian argitaratuko da hori.

Batzordeak proposamenak aztertuko ditu, akta egingo du eta esleipen-proposamena helaraziko dio Tokiko Gobernu Batzarrari, hark onets dezan.

Esleipendunak 4.840,32 euroko bermea jarri beharko du 10 egun balioduneko epean, esleipenaren jakinarazpena jasotzen duen egunaren biharamunetik kontatuta.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko azaroaren 5ean

*Ogasun Saileko zinegotzi ordezkaria*

**IÑAKI GURTUBAI ARTETXE**